


laister berri



001

ETXEBIDE

002

BEASAINCO PAPERAK

003

ARCAZKI ERAKUSKETA

004

BERMEDO-enea
APARKALEKUA

005

GAZTE KOOPERANTEAK

006

0-100 KIROL ZIRKUITUA

007

KONTZERTUA

008

GOIENIZ

010

EKINTZAK

laister berri

ETXEBIDE. BABES OFIZIALEKO ETXEA



Beasaingo Udalak udalerriko arau subsidiarioak garatu ahala, 2008rako hainbat etxebizitza babesturen zozketa aurrirakusten du.

Zozketa horretan parte hartzeko nahitaezkoa da ETXEBIDEn (Etxebizitza Euskal Zerbitzuan) izena ematea. Datorren urteko zozketetan parte hartzeko 2007ko azaroaren 30a baino lehen Etxebideko zerrendetan izena emanda egon behar da. Etxebidek etxebizitza erabiliak eta berriak eskaintzen ditu, alokairuan zein salmentan daudenak. Izena ematerakoan, ondo azaldu behar da zein motatako etxebizitza nahi den.

Kutxa
Euskadiko Aurrezki Kutxa- Caja
Laboral.
Etxebide:
Eusko Jaurlaritza, Andia 13.-
Donostia.- Tf. 943022810

www.etxebide.info
etxebide@ej-gv.es.
www.beasain.net

laister berri

Diseinua:
AH Diseño
Maketazioa:
AH Diseño
Erredakzioa:
AH Diseño
Publizitatea:
AH Diseño
Inprimaketa:
Gráficas
San Martín C.B.
Lage Gordailua:
SS-654/96
Erredakzioa
helbidea:
Martina
Maiz 3/2.
bulegoa
T 943 882 257
F 943 027 639
E ab@dicab.com

Beasaingo Kultura
Batzordeak
aldizkari honen
6.500 ale banatzen
ditu hilabetero
Beasaingo
postontzietan.

Eragilea:
kultura saila



Beasaingo udala

Etxebide_001

laister berri

BEASAINCO PAPERAK : BEASAINCO EUSKARA

Beasaingo Udalak Beasaingo Paperak bildumaren 15. alea aurkeztuko du hilaren 7an Usurbe antzokian 19.00etan. Ale honetan bertako nagusien hizkuntza ondareajaso nahi izan da. Hizkuntzarekin batera, gainera, XX. Mende erdialdeko beasaindarrak nola bizi ziren ere erakutsiko digute beren testigantzekin.

Hemiko hizkeraren azterketa eta ahozko ondarearen bilketa egin da bildumako azken alerako. Izan ere, edozein herritan bertako gizartea ezagutzeko, herritarrek erabiltzen duten hizkuntzak garrantzia handia du, hizkuntzak jasotzen baititu bertakoen sentitzeko eta bizitzeko modua.

Ondorengo belaunaldiei eta euskaldunberriei ere, zor zaie horrelako lan bat. Horiei guztiei euskarari esker zabaldu zaien mundua gehiago aberastera dator liburu hau. Nekez ezagutu liteke herri hau nolakoa den, bere osotasunean behintzat, bertakoen hizkuntza jakin gabe. Euskara ez dakienak herri horren zati hori galdu egiten du.

Lan hau egiteko gainera, Beasainen bazen nor aukeratu, baina oraingoan, 45 beasaingar elkarmizketatu dira. Hautaketarako irizpide nagusiak adinez ahalik eta nagusienak izatea eta Beasainen jaio eta bertan bizi izandakoa izatea izan dira. Horrez gain, saiatu dira lagina orekatua izaten, hau da, auzo desberdinetakoak izan zitezela bertan, kaletarrak eta baserritarrak eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko oreka kontutan hartuz.


Adinekoek zein gazteagoek, euskaldunberiek zein euskaldunzaharrek, bakoitzak ikus diezaiola probetxua argitaratu berri den ale honi.



Beasaingo Paperak_002

laister berri

ERAKUSKETA. MIKEL AYESTARANEN ARGAZKIAK



Mikel Ayestaran Ayerra (Beasain, 1975) Freeland kazetaria da eta idatzizko zein ikusentzunezko hainbat komunikabidetan kolaboratzen du. 2006. urtean Iran, Siria, Afganistan eta Libano-n koberturak jaso zituen. 2007. urte hasieran Irak-en egon zen, Saddam-en heriotza eta gero. Argazkilari zaletua, hau bere bigarren erakusketa da; 2005. urtean, Kutxaespazioan egindako erakusketa batean, Bam-en, Irango Hego-ekialdean, gertaturiko lurrikararen ondorioak erretratatu zituen eta

ARGAZKIAK

33 argazki hauek, Libano-ko gerrak iraun zituen 33 egunak islatu nahi dituzte, hala nola, gatazkarekin batera gertatzen diren sufrimenduak, txikizioak, zaurituak, hildakoak... Gerrara gerturatzea gogorra da, horregatik, erakusketa hau ere, gogorra da, baina Gurutze Gorrikoek beharrezkoa dela pentsatzen dugu, lehenengo momentutik laguntza humanitarioaren beharraz ohartarazteko eta egun batetik bestera ezer gabe gelditzen den jendeari laguntza emateko.

laister berri

BERNEDO-enea APARKALEKUA



Beasaingo Udaleko Udaltzaingoak, Bernedo-eneko aparkaleku berria abian den honetan, deialdi berezi bat egin nahi dugu: batetik, herritarrei eta bestetik, eskualde osotik etortzen diren gidariei: aparkaleku berri hau erabiltzearekin herriguneko trafiko arinagoaz gozatuko dugu guztiok.

Beasaingo herritarrok beste aparkaleku handi eta eroso bat dugu martxan: guztira 350 aparkaleku daude, hauetatik 6 elbarrituentzako direnak. Ordu askotan aparkatuta egon behar duen autoarentzako toki egokia dugu hau, erdigunetik oso gertu. Kontuan izan behar dugu, erdiguneko aparkalekuak egunero herrian dauden zerbitzuetarako behar direla.

Eskualdetik etortzen diren gidarien artean bi motatakoak daude. Batzuk, goizero Beasainen autoa aparkatu eta trenez lanera joaten direnak eta besteak aldiz, erosketak, gestioak egitera edota paseatzera soilik etortzen direnak. Denei dei berezia luzatzen die Udaltzaingoak Bernedo-eneko aparkaleku hau erabiltzeko, ez baitute herrian sartu beharrik izango errepide N-1etik duen sarbidea erabiliz gero.

laister berri

GAZTE KOOPERANTEAK



Lanbidez argazkilariak ez diren zaletu guztiek har dezakete parte. Gainera, 16 urtera bitarteko gaztetxoentzako atal berezi bat sortu da. Rallyan diapositibek nahiz argazki digitalen parte har dezakete. Diapositiban parte hartzen duenari errebelatze gastuak barne dituen karreteak emango zaio. Gaiak izen-emate epea irekitzen denean jakinaraziko dira.

Partaideek egun berean entregatu beharko dituzte karreteak-txartelak 14:00etatik 14:30era edo 18:00etatik 18:30era. Partaide bakoitzak gai bakoitzetik diapositiba-argazki bat aukeratu beharko du. Aukeraketa egiteko egunak, urriaren 29a eta 30a, astelehena eta asteartea izango dira, 19:00etan, Urbietan.


Sariak BEASAINGO BUZTINA elkartearen tailerretan egindako zeramikazko ikur eskusiboak izango dira diru-sariez gain.

Epaimahaia erakunde antolatzaileak izendatuko du eta bere erabakiak apelaezinak izango dira.

Sari-banaketa eta aukeratutako diapositiben-argazkien proiektzioa azaroaren 11an, igandea, izango da Beasaingo Udaletxean 19:00etan.

laister berri

0-100 KIROL ZIRKUITUA



EGUNEROKO ARIKETAK PERTSONA HELDUENTZAT

Beasaingo Udalak, Zerbitzu Sailaren bitartez, pertsona helduei zuzendurik kirol zirkuitu berria aurkezten digu. Haurrentzako parkea dirudien arren, eguneroko ariketak egiteko prestaturiko zirkuitua dugu hau.

Ariketa bakoitza gutxienez 5 aldiz eta gehienez 10 aldiz errepikatzea gomendatzen da. Gutxiu liteke zailtasuna handia bada. Edozein momentutan, pertsona oso nekatuta sentitzen bada, erritmoa jeitsi beharko du edo beharrezkoa bada ariketa gelditu eta deskantsatu.



laister berri

KONTZERTUA



Jesús Mª García Aréjula baritonoak eta Amaia Zipitria pianujoleak kontzertua eskeiniko dute, Schubert-en Winterreise(Neguko bidaia) lanarekin.

Lan honetan Schuberten erromantizismoaren osotasunaren zati handi bat azaltzen da. Trinkotasun eta heldutasun izugarriko lana da, Schubertek 30 urterekin osatutakoa izanda ere (1827an), bere heriotza baino urtebete lehenago. García Aréjula, Donostiako Orfeoiko kide da 1979az geroztik. Beste talde batzuekin kolaboratu ohi du; esaterako, Peñafloresta Kaperarekin edo Iruñeko Ganbera Abesbatzarekin. Kantari bakarlari moduan, Oratorio musikara dedikatzen da gehienbat, batez ere musika barrokorak.

Amaia Zipitria, pianista handia, orkestra eta kontserbatorio garrantzitsu askotako kide eta laguntzaile da, Orfeoi Donostiarreko kantu eskola, Euskadiko Orkestra Sinfonikoan esaterako. Maisu handi askoren laguntzailea ere izan ohi da, eta oraingoan García Aréjularen ondoan ikusteko aukera izango dugu azaroak 21ean eskeiniko duten kontzertuan.

laister berri

GOIENIZ ZINE KLUBA

EL GRAN SILENCIO

TIEMPO DE VALIENTES

LA PEQUEA LOLA

Azaroak 8,
osteguna
Zuzendaria:
Philip Gröning



Gaur egun dugun bizimodua kontuan izanik, hau da, jendea presaka alde batetik bestera... film hau zaplazteko baten modukoa da. Dokumental honen bidez Alpeetan dagoen monastegi bateko bizitza islatu nahi da, bertan bizi diren fraideek, beste gauza batzuen artean, isiltasunean ibiltzea erabaki baitzuten. Filmean monastegi barruko hotzak entzungo ditugu soilik: fraideen kantuek, eguneroko zereginak...

Azaroak 22,
osteguna
Zuzendaria:
Damián Szifrón



Alfredo izeneko polizia laguntzeko eskatu diote Mariano Silverstein psikologoari. Emazteak engainatu egin du polizia eta lur jota dago. Konturatu gabe, psikologoa eta polizia trama arriskutsu batean murgiltuko dira. Polizia atipiko baten eta haren laguntzaile psikoanalistaren ibilerak kontatzen ditu, oso modu fresko eta atseginean. Estatu batuarrek ekoiztutako ohiko polizia istorioen parodia egiten du zuzendaria.

Azaroak 29,
osteguna
Zuzendaria:
Bertrand Tavernier



Haur bat adoptatzeko irrikak bikote gazte bat, Pierre eta Geraldine, bidai batean abiarazten du historioak oinazetutako herrialde batean barrena, Kanbodian hain zuzen. Abentura sinestezin batean murgilduko dira: umezurtz-etxeetara bistak, agintari frantses eta kanbodiarrarekin liskarrak... mesfidantza eta inbidiak ahaztu gabe, baina baita ustekabean bildutako gurasogai talde txikiaren elkartasuna ere.